LANPOSTUAK EGOKITZEKO ETA OZTOPOAK KENTZEKO DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA

Prozeduraren kodea	1	0	3	7	0	1	4

1. ENPRESA ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

IZENA EDO SOZIETATE-IZENA		IFZ
HELBIDEA		**HERRIA**
POSTA-KODEA	**LURRALDE HISTORIKOA**	
KOTIZAZIO-KONTUAREN/EN KODEA/K		**JARDUERA/K EKONOMIKOA/K (JESN)**

2. ORDEZKARIAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN/AIZ
EAEko Administrazio Publikoaren ordezkarien Erregistro elektronikoan inskribatuta dago?		
Bai. ☐	**Ez** ☐	**(Kasu horretan, ordezkaritza egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar du)**

3. HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN/AIZ
TELEFONOA	**HELBIDE ELEKTRONIKOA**	

4. JAKINARAZPENERAKO DATUAK

KOMUNIKAZIO-HIZKUNTZA			
Euskara ☐		**Gaztelania** ☐	
JAKINARAZPEN ELEKTRONIKORAKO BIDEA			
Sakelako telefonoa		Posta elektronikoa	

5. ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

ESKATUTAKO KOPURUA (EUROTAN)	

6. DIRULAGUNTZAREN XEDEA DEN JARDUKETA

TIPOLOGIA	
☐	Oztopo fisikoak kentzea.
☐	Lanpostuaren edo ekoizpen-prozesuaren ekipamenduak edo ingurune fisikoa egokitzea.
☐	Informatika- eta komunikazio-programak jartzea.
JARDUKETAREN KOSTUA	euro.

7. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONA KONTRATATUEN ETA EGOKITZEEK EDO OZTOPO-KENTZEEK ERAGINA IZAN DUTEN LANPOSTUEN ZERRENDAK

KONTRATATUTAKO PERTSONAREN IZEN-ABIZENAK:		
LANPOSTUA		
KONTRATU-MOTA		
LAN-KONTRATUAREN HASIERAKO EGUNA		
IRAUPENA		

(*Zutabeak gehitu hala beharko balitz)*

8. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

☒ Markatu dagokiona X batez)

_____ jaunak/andreak (NAN zk.: _____), honen ordezkari dela: _____,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA:

☐ Ez dela kondenatua izan, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

BIGARRENA:

☐ Ez dela epai edo administrazio-ebazpen irmo batez kondenatua edo zehatua izan, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galduz, edo, hala izan bada, igaroa dela kondena- edo zehapen-epea

HIRUGARRENA:

☐ Ez duela eskatu borondatezko konkurtso-deklaraziorik, ez dagoela edozein prozeduratan kaudimengabetzat deklaratuta, ez dagoela konkurtsoan deklaratuta edo, hala egonda ere, hitzarmen bat eraginkor bihurtu dela hartan, ez dagoela esku-hartze judizialaren pean, eta ez dagoela desgaitua Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera edo, hala egonda ere, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu duela.

LAUGARRENA:

☐ Ez duela administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik izan, errudun deklaratuak izan direlako

BOSTGARRENA:

☐ Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak ez daudela honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetans

SEIGARRENA:

☐ Ez duela egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.

ZAZPIGARRENA:

☐ Ez duela dirulaguntzen arloko ordaindu gabeko itzulketa-betebeharrik, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA), eta konpromisoa hartzen duela egoera horretan, emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte, gertatzen den edozein aldaketaren berri emateko.

ZORTZIGARRENA:

☐ Ez duela zehapen administratibo edo penalik jaso sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik —zehazki, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa—, edo zehapen-epea igaro dela.

BEDERATZIGARRENA:

☐ Ez dagoela sartuta laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten dion legezko kausetan, hauek barne:

– Berdintasun-planik indarrean ez edukitzea, Estatuko araudiaren arabera horretara behartuta dagoen enpresa izanik.

– 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan, ez edukitzea ezarrita sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitu eta eragozteko neurririk, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legeetan ezarritakoaren arabera.

– LGTBIfobia izatea, bultzatzea edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne.

HAMARGARRENA:

☐ Ez dagoela zehatuta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik eta administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez edo, hala izan bada ere, ezarri dituela beharrezko neurri zuzentzaileak eta ordaindu duela dagokion zehapena.

HAMAIKAGARRENA:

☐ Betetzen duela desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak gordetzeko legez ezarritako kuota edo, hala ez bada, hartu dituela dagozkion neurri alternatiboak.

HAMABIGARRENA:

(Elkartea izanez gero soilik bete)

☐ Ez dagoela Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-kausen eraginpean,

☐ Ez dela inskripzio-prozedura administratiboa eten zaion elkarte bat legez kontrako egintza penalen zentzuzko zantzuak aurkitu direlako, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, edo, eten bazaio ere, eman zaiola ebazpen judizial irmoa eta, beraz, baduela dagokion erregistroan inskribatzeko aukera.

HAMAHIRUGARRENA:

- Konpromisoa hartzen duela emango zaion dirulaguntzak, beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatu batzuekin batera, ez duela diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik ekarriko, eta, alde horretatik,
  - Ez duela xede eta helburu berberarako laguntza edo dirulaguntzarik jaso beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuetatik.
  - Laguntza hau jaso duela: ..... euro, honek emana: .....
  - Laguntza eskatu diola honi: ....., eta ebazpenaren zain dagoela.

HAMALAUGARRENA:

- Ez dagoela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako dirulaguntza itzultzeko ezein prozeduraren eraginpean
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako dirulaguntza bat itzultzeko prozedura batean sartuta dagoela:

  -.Programa edo deialdia: ……

  -.Espediente zenbakia: ……

HAMABOSTGARRENA:

- Konpromisoa hartzen duela enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HAMASEIGARRENA:

- Ez dagoela berreskuratze-agindu baten zain, Europar Batasuneko Kontseiluak dirulaguntza bat ilegal eta merkatu erkidearekin bateraezin gisa deklaratu duen aurretiazko erabaki baten ondoren.

HAMAZAZPIGARRENA:

- Ez duela krisian dagoen enpresaren izaera, aipatutako 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2.18 artikuluan jasotako definizioaren arabera

HAMAZORTZIGARRENA:

- Betetzen dituela deialdian eskatutako baldintza guztiak eta eskabide honetan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla.

9. DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamendu-jarduera	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua.
Helburua	Lanbideren eskumen diren enpleguko politika aktiboekin lotutako dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea. Iruzurra jazartzea eta estatistikak.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiltzea; legezko betebeharra betetzea.
Eskubideak	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzekoa edota aurka egitekoa ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.
Informazio gehigarria	Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsultatu ahal duzu gure webguneko datu-babesari buruzko atalean: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-capa2-eu.shtml
Honako araudi hau betetzeko asmoz: • Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) • 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)	

10. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Zerrenda non zehazten diren, batetik, desgaitasuna duten pertsonak eta, bestetik, egokitzeak edota oztopoak ezabatzeak eragindako lanpostuak
- Egokitzeak edo oztopo-kentzeak azaltzen dituen memoria.
- Egokitzeak edo oztopo-kentzeak egiteko lanak ordaindu direla egiaztatzen duten fakturak.
- Eskatzailea pertsona fisikoa baldin bada, organo eskudunaren ziurtagiria, (non zehazten den Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafea)

2.- Dokumenturik ez aurkezteko eskubidea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta salbu zu berariaz aurka agertzen bazara, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, honako agiri hauek eskatuko dituela bitarteko elektronikoz. Berariaz adierazten baduzu ez duzula nahi Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dokumentu horietakoren bat eskuratzerik, ondoren adierazitako laukitxoan adierazi beharko duzu, eta, beraz, eskabide honekin batera aurkeztu beharko dituzu dokumentuak

	Baimena eman ezean
Zerga-betebeharrak egunean dituzula egiaztatzenduen ziurtagiria.	☐
Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria	☐
Jarduera ineko Zergaren epigrafeen kontsulta	☐

11. INFORMAZIO GEHIGARRIA

1.- Datu pertsonalen egiaztapena.

Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, jakinaren gainean jartzen zaitugu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak egikarituz, eskabide honetan ageri diren eta administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalen zehaztasuna bermatzeko behar diren egiaztapenak egingo dituela.

2.- Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan.

Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, pertsona edo erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du.

Erregistratuta ez badago, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimaki bat bete beharko du, hemen adierazitako ereduari jarraituz: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa

Eskabidearen sinadura elektronikoa: